

JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

ZIURTATZEN DUT: Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2017ko abenduaren 14an, 443 zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esan duena:

"IKUSIRIK: Beharrezkoa da Ozaeta herriko gune bitan (Udalaren jabetzapekoak diren guneak) hobeto argizatzea.

GERTUA IZANIK: Gune bi horiek honako hauek dira: Ozaetako Plaza eta Skate pistaren ingurua.

GERTUA IZANIK: Horniketa eta instalazio hori gauzatzeko EKIONA merkataritza-etxeari eskaintza ekonomikoa aurkez dezan eskatu zaio.

GERTUA IZANIK: EKIONA merkataritza-etxeak, aurreneko horniketa eta instalazioa burutzeko eskaintza ekonomikoa aurkeztu du, beronen zenbatekoa 8.386,51 € (BEZ barne).

KONTUAN HARTUZ: 2017ko Aurrekontu Orokorretako 165.601.000 aurrekontu-sailan nahiko kreditu dago gastu horri aurre egiteko.

KONTUAN HARTUZ: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bateginaren 138.3 artikuluan zehaztutako kontratu txikietan, espedienteak gastua onartzea eta dagokion faktura espedienteari gehitzea besterik ez du behar.

KONTUAN HARTUZ: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, azaroaren 14koa, 138. artikulua araberak kontratu txikiak 50.000 eurotik beherakoak izango dira, baldin eta obra-kontratuak badira, eta 18.000 eurotik beherakoak, bestelako kontratuak badira.

KONTUAN HARTUZ: Toki Jaurpidearen Oinarriak Arauzkotzeko Legearen 21.1.f) artikulua xedatutakoa.

ZERA ERABAKITZEN DUT


LEHENA.- Herriko gune bitan (Udalaren jabetzapekoak diren guneak) hobeto argizatzeko horniketa eta instalazio proiektua onartzea.

Gune bi horiek honako hauek dira: Ozaetako Plaza eta Skate pistaren ingurua.

BIGARRENA.- Aurrenean aipatutako horniketa eta instalazioa egitasmoa EKIONA S.L. merkataritza-etxeari (IFZ: B-75021477) esleitzea, beronen zenbatekoa 8.386,51 €takoa (BEZ barne) izanik.

HIRUGARRENA.- Esleipena 165.601.000 aurrekontu-sailaren pentzutan burutuko da.

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

LAUGARRENA.- Honako erabaki hau EKIONA S.L. merkataritza-etxeari jakinaraztea (Paseo Mikeletegi, 56 Donostia 20009).

BOSGARRENA.- Honako erabaki hau Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea (www.barrundia.eus)."

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut Afro Olabe Martinez de Albeniz Alkatearen oneritziarekin.

Ozaeta 2017ko abenduaren 15.

Vº. Bº.
ALKATEA



Afro Olabe Martinez de Albeniz